

albisteak analisiak



2014ko otsailaren 05a | Ordua Euskal Herrian 11:31:40

EGUNEKOAK

ASTEKARIA

BLOGAK

MULTIMEDIA

Bilatu ARGIA-n

Argia Ingurumena

POLITIKA NAZIOARTEA GIZARTEA EKONOMIA EUSKARA INGURUMENA HISTORIA TEKNOLOGIA KULTURA ZIENTZIA IRITZIA

INGURUMENA LANDAREAK Maspila Mizpira Elorria Tabakoa Laharra Laborrena Tomatea Kiwia Baobab Intsusa Zihaurria +

PDF BERTSIOA INPRIMATU IRUZKINAK

● LANDAREAK ●

Paleosagardoa



Jakoba Errekondo
2391. alea
2013-11-17

2

7

1

0



Granny Smith aldaerako sagarrak harriz kolpatzen. (Jakoba Errekondo)

Gastronomia=astonomia nioen lehengoan. Vazquez Montalban jeniozko idazlea zenak gastronomoen kontrakoa naizela erakutsi bazidan ere, mahaia bezainbeste gurtzen dudana altzari gutxi dago. Burua mugitzen duen makinari eman beharra dago. Jan eta edan. Sagardogile batek bere botiletan hala jartzen du: "Edan eta edatera eman". Geure mahaian jan-edanaz asko ikasi ohi da, neuk gehien.

Moko=McIntosh, sagarra sagar. Moko omen da gaurko enologoaren iritziz sagardotarako sagar onena. Sagardozaleei galdetu behar... Gure mahaian ikasia dut: behin sagarrak ez hemen eta McIntosh sagarrez betetako trena iritsi omen zen. Harena, hura bai sagardoa! Geroztik, etxeko sagastietan Makintox aldaerako arbolak ez dira falta izan. Mac, McIntosh baita, eta sagarra, Apple.

Ikasi=irakatsi denez, urrutira joan naiz Sagardoaren Unibertsitatearen eskutik. Italiara. Han ere sagardoa egiten da, baina iparraldean, gutxi eta gozoa. Batzuek euskal erakoa edan nahi, baina, kanpotik ekarri beharrean beraiek egiteko adinako ausardiaz oterra bete eta ekin diogu. Atlantiar kultura Mediterraneora, Genzanora eta Casaprotara. Ologintzaz eta mahatsardogintzaz ikasi eta sagardoaz irakatsi. Sagardoaren kultura gustura aditu dute, baina ondoren sagardoa egin egin behar zen. Ez

sagar, ez matxaka, ezer gabe, lotsarik ere gabe aurrera. Bi barrika bordeles betetzeko lanari ekin genion, gogoz eta herrilanean. Hiriburuari Eroma esaten diote bertakoek, ez guk diogun Erroma. Eroma elikatzen duen merkatu izugarria sagarreta; jan-sagar aukeratik, Australian sortu zuten Granny Smith aldaerakoak erosi, 704 kilo, 51 kaxa, 60 bat ale bakoitzean, 3.060 sagar. Matxakarik ez zenez, eskuz jo behar izan genituen sagarrak, makilaz eta harriz egurra eman behar, ale bakoitzari lau bat kankateko. 12.240 ukaldi. Paleosagardoa. Hura harrikada, geurea eta festa. Eta festak dena bideratzen du: herriko amona-aitonek etxe batzuetan jaso den sagar zahar baten berri ekartzea (*citriola* gorde-sagarra), FAOko albaiariaren buruak eta *carabiniere* batek tresnak uztea, herriko alkateak bere dolarea lagatzea, borondatezko hogeitaz lagunek lan ezezagun batean murgil egitea... Sagardo italiar berriaren bueltan mundu handi bat eraiki da: amona sardiniarra eta siziliarra, sen zorrotzeko errumaniar finak, hippy eta okupa eromatarrik, abizen euskalduneko amerikar jauntxo "ia indianoak", barrika frantsesak, euskaratik itzulpena... Denak lanean, italiar erara, baina lanean. Eta zein ona den lana! Ganboatarren abizeneko idazle kolonbiar sonatu bat genuen tartean, sekula egin duen gauzarik euskaldunena semeari erakusten, estasian, lanak barrenak mugituta.

Harrizko Eroma= harrikada.



2390

2389

2391 zenbakia.
2013ko azaroaren 17a

Astekaria Larrun Hemeroteka
Elkarrizketatuak Egileak Atalak

Babeslea



Argia

Atsegin dut

6.294 people like Argia.

Jaso egunero email bakarrean eguneko 10 albisteak. Eta astean behin, astekaria. **Dohainik.**

Idatzi e-posta albiste bulet

Ale berean...

Oligarkiaren bortizkeria nola barneratu dugun



antiglobalizazioa

Kapitalismoaren aurkako ikurraren bilakaera

Hilari Pagazaurtundua

"Bizi honetan jaso dudana guztia gizarteari itzuli beharra daukat"

1 comment ★ ◀ 0

Join the discussion...

Best ▾ **argia**Share  Login ▾

Guest • 3 months ago

Grazia et erra!

Grazie mille Jakobari. Lehengo astean Lazio

eskualdean Jakobak egindakoa, txinparta-frizzantea izan da. Eta ezingo dugu aski eskertu bere abilezi, jakintasun, gustu, lanerako gaitasun, eskuzabaltasun eta alaitasuna. Kaosa odol duen Caput Mundi hiri honetan, Eroman, sagarrak bilatu ta aukeratu, kotxean alde batetik bestera eraman, eskualdeko bi herritan taldeak antolatu eta lana egingo dela konfiantza eman, beharrezkoak diren materialak bildu, falta direnak beste nolabait ordezkatu (harriak matxaka ordez!!). Eta guzti horren ondoan hitzaldiak eman, hamaika galderari erantzun, barrikak prestatu, eta abar eta adar et cetera latinez!

Jakobaren

artikulu hau italianora itzuli dugu. Gure web orrian irakurri ahal duzue: www.euskara.it

Associazione

Culturale Euskara elkarteak eta UPTER Unibertsitateko Euskal Sailak azken 12 urtetan euskal kultur programazioa egiten dute Italian. Hainbat dira antolatzen ditugun ikastaro, proiektu ta ekitaldiak. Datorren abenduaren 3tik hasita, Euskal Astea 2013: Joseba Tapia, Harkaitz Cano, LIBE on-line argitaletxearen aurkezpena (Koldo Izagirre eta Mariasun Landaren bi liburu izango dira italieratutako lehenengo bi e-liburuak), zinema, gastronomia, Lazioko soinumapa (Euskal Herriko Soinumaparen anai txikia) ...

Agian irakurleren batentzat Eromara etortzeko aitzaki ederra.

Arrivederci!

 |  • Reply • Share**Koitz Arrese**

"Tokian tokiko borroka txikiak norabide berean jartzea da benetako erronka"

**Kooltur ostegunak**

Ekinaren ekinez, kultur eskaintza iraunkorra Arrasaten

 Subscribe  Add Disqus to your site

Kazetaritza independentea eta profesionala egiten dugu, euskaraz eta euskaldunontzat.

Idatzi helbide elektronikoa

HARPIDETU ORAIN

ALTA EMAN

EGUNEKOA POLITIKA NAZIOARTEA GIZARTEA KULTURA EUSKARA EKONOMIA ASTEKARIA MULTIMEDIA

Nor gara | Kontaktua | Mapa | Lege oharra | RSS jarria | Iragarri | Harpidetu | Tel: 943 371 545

1998 - 2014 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.